

Goi Mailako  
Lanbide  
Heziketa

Osasuna

# Hortz protesietako goi mailako teknikaria



Nafarroako  Gobierno  
Gobernua de Navarra



UNIÓN EUROPEA  
EUROPAR BATASUNA

Fondo Social Europeo  
Europako Gizarte Funtsa

El FSE invierte en tu futuro  
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

# Hortz protesietako goi mailako teknikaria

## Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jardura profesionalak garatzeko:

### Hortz protesia

- Hortz protesietako zentro, instalazio edo laborategi bat kudeatzea eta hortz eta aurpegiko protesiak, ortodontzia aparatuak eta oklusio ferulak diseinatu, prestatu, egin, fabrikatu eta konpontzeko prozesuak antolatzea.
- Sendagilearen aginduak interpretatzea, produktua zehaztea, eta programatu, prestatu eta kontrolatzea hortz eta aurpegiko protesien, ortodontzia aparatuen eta oklusio ferulen fabrikazioa eta/edo konponketa.
- Erretxinazko protesi erauzgarri osoak diseinatu, prestatu, egin, fabrikatu eta konpontzea.
- Ortodontzia aparatuak eta oklusio ferulak diseinatu, prestatu, egin, fabrikatu eta konpontzea.
- Lehengoratzak eta egitura metalikoak diseinatu, prestatu, egin, fabrikatu eta konpontzea, metal-zeramikazko eta/edo metal-erretxinazko hortz protesi finkoak egiteko.
- Protesi erauzgarri partzialak, metalezkoak, erretxinazkoak zein mistoak diseinatu, prestatu, egin, fabrikatu eta konpontzea.
- Zeramikazko edo erretxinazko lehengoratzak eta estaldura estetikoak diseinatu, prestatu, egin, fabrikatu eta konpontzea, metalezkoak izanda nahiz metalezkoak izan gabe.
- Inplanteen gaineko hortz protesiak diseinatu, prestatu, egin, fabrikatu eta konpontzea.

### KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Titulu hau eskuratzen duten pertsonak osasun sektorean aritzen dira, enpresa pribatuetan edo laguntza instituzioetan, hortzen osasun produktu

#### + INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

 [f pnavarra www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional](https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional)

neurrirakoen fabrikatzaile gisa hortz protesietako laborategietan, langile autonomo gisa edo beste baten kontura, eta hortz industriako enpresetan, hala nola materialak eta makinak hornitzeko fabriketan, edo hortz biltegietan, enpresako berariazko prestakuntzako jardueretan parte hartuz. Halaber, ikerkuntza teknologikoaren arloan garatzen ahal du bere jardura hortz sektoreko enpresetan, eta instruktore gisa hortz industrian, ikastaro oinarritzako edo aurreratuak emanez material eta teknika berrien inguruan. Estatuko osasun administrazioaren erregulazioaren menpean dago bere jarduna.

Hauek dira jardura eta lanpostu aipagarrienak:

- Hortz protesietako goi mailako teknikaria.
- Hortz protesietako teknikari espezialista.
- Hortz protesietako laborategi baten arduradun teknikoa.
- Saltzailea hortz industria batean edo hortz biltegietan.
- Arduradun teknikoa ikerkuntzako eta produktuak garatzeko departamentuetan, hortz industrian.

### ZIKLOAREN MODULUAK

- Hortz protesietako laborategia.
- Protesiaren diseinu funtzionala.
- Protesi osoak.
- Lehengoratzak eta metalezko egiturak protesi finkoetan.
- Protesi erauzgarri partzialak, metalezkoak, erretxinazkoak eta mistoak.
- Ingelesa I.
- Ortodontzia aparatuak eta oklusio ferulak.
- Lehengoratzak eta estaldura estetikoak.
- Inplanteen gaineko protesiak.
- Lanerako prestakuntza eta orientabidea.
- Enpresa eta ekimen sortzailea.
- Hortz protesietako proiektua.
- Lantokietako prestakuntza.